2003-X-24
Número **116.** zenbakia
ELA
# astekaria

## EDITORIALA

### Militantziaren beharra

**Gehienok normaltasuna izan ohi dugu gustoko, esate baterako bizimodu normala, ezusterik gabea, gure beharrak modu egokian asetzeko eta harremanak nahi bezala garatzeko aukera emango diguna.**

**Denok amesten dugu normaltasuna edo erosotasuna: Noranahi bizkartzainarekin joan behar duen zinegotziak; lan-kontratu ez finko edo ezohikoz lotuta, bizi-proiektu bati ekin ahal izateko egonkortasuna ukatzen zaion langileak; seme-alaba, senidea edo laguna espetxeratua ikusteko astero kilometro mordoa egin behar duenak; proposamen politiko bat mahai gainean jarri izanagatik infernuko deabru guztiak baino deabruago jotzen duten lehendakariak, etab.**

**Halaber, euskalgintzak ere behar du normaltasuna, beti susmopean eta sarritan erasopean dagoen sektore honek nahikoa zeregin bai baitauka, irakasle, hedabideetako langile edota kulturaren sustatzaile direla ere, hurrengo zaplaztekoa noiz etorriko den beldurrez eta estatuaren ostikoz lan handiz eraikitakoa lan handiagoz berreraikitzen.**

**Normaltasun ezean, amestu arren, ez dago eroso bizitzerik. Gauzak aldatuko badira, militantzia ezinbestekoa da. Eta horixe da euskalgintzan diharduen jendeak egiten duen lanaren balio erantsia.**

**Baina militantziak ez du soilik euskalgintzako profesionalen kontua izan behar. Euskararen arloan normaltasuna amets dugunok ere geure eguneroko jardunean militante izan behar baitugu: euskal argitalpenak eskuratuz; euskal proiektuei babesa emanez –hortxe dugu Irunberriko Arangoiti ikastolak hain beharrezkoa duen laguntza–, edo eguneroko jardunean euskara erabiliaz. Ezina, ekinez egiten omen da, ukatzen zaigun normaltasuna militantziaz lortuko den bezala.**




### El programa de formación del curso 2003-2004, en marcha

# ASIGNATURA: NEGOCIACIÓN

Con el nuevo curso sindical se ha iniciado también el periodo formativo de los y las militantes de ELA. Desde el mes de septiembre, y hasta final de año, alrededor de 1.500 delegados y delegadas participarán en cursillos. Ascienden ya a 50 las jornadas formativas en cada una de las doce comarcas, en las que participarán, en los diferentes niveles, representantes de las cuatro federaciones. Se trata de que todas las personas y estructuras de la organización a quienes corresponde protagonizar la negociación colectiva del 2004 estén engrasadas y en sintonía.



De acuerdo con el plan aprobado para el 2003, el objetivo es que todos los delegados y delegadas del sindicato realicen a lo largo de cada año dos cursos de formación. El tema central del primero de este curso es la negociación colectiva. En el segundo cuatrimestre del año, serán temas relacionados con el modelo de sociedad y de país a los que ELA aspira.

### NEGOCIACIÓN COLECTIVA

El primer cursillo de este año, que está siendo impartido por miembros del Comité Nacional, gira en torno a la negociación colectiva, desde la perspectiva del contexto actual y la ideología. Se está incidiendo también en los ámbitos de negociación y en los contenidos que queremos introducir en los convenios y pactos, en las alianzas reales posibles y en la organización necesaria para una negociación eficaz.

Se están celebrando, además, cursos específicos para los nuevos delegados y delegadas, en su gran mayoría jóvenes, para que conozcan más en detalle la historia, la organización, las formas de trabajo y los servicios del sindicato.

### EUSKALGINTZA Y MEDIO AMBIENTE

Además de la formación específica destinada a los miembros de los comités comarcales y del comité nacional, cabe mencionar el ciclo de conferencias relacionadas con medio ambiente y la actividad cultural vasca. Juantxo Pérez Uralde ha ofrecido dos conferencias sobre el tema el "Prestige, un año después", y están ya previstas intervenciones de Joan Mari Torrealdai, Bernardo Atxaga y Jon Sarasua, en Iruña, Donostia, Bilbo y Gasteiz, a las 18 horas, en lugares que se anunciarán oportunamente.

Nuestro objetivo es que la formación que impartamos desde diferentes vertientes y abordando campos variados, responda de forma adecuada a las necesidades y exigencias de nuestra organización y de nuestra gente, los trabajadores y trabajadoras.

# MARIA CRISTINA HOTELEKO LANGILEAK, HILABETE T'ERDI GREBAN

Maria Cristina hoteleko langileen greba hasi zenetik hilabete t'erdi igaro da, eta hotelearen aurrean egunero egin ohi diren bilkura eta protesta saioek jarraitzen dute. Iragan astean Odon Elorza Donostiako alkateak eskatuta langileen ordezkariak eta Maria Cristinako zuzendaritza elkartu ziren, inolako hurbilketarik lortu gabe. Aipagarria da bilera honen deitzailearen jarrera axolagabea, negoziazio saioak iraun zuen hiru orduetan ez baitzuen bitartekaritzarako inolako gogorik azaldu.

Harik eta lotsagabeagoa izan zen hoteleko zuzendaritzaren jarrera, duela aste batzu aurkeztutako proposamenera ez baitzen iritsi soldata eta enplegu gaietan. Azken gai hau, enpleguarena, hain zuen, negoziazioaren gakoa bihurtu da. Egunak eta negoziazio saioak igaro ahala, gero eta garbiago baitago enpresaren zuzendaritzaren asmoa azpikontratazioa bultzatzea dela epe motzera.

Maria Cristina hoteleko zuzendaritzaren asmoak eta negoziaziorako gogo falta ikusirik, datozen egunetan mobilizazioak ugaltzeko deia egin dute grebalariek, eta afera honetan eraikuntzaren jabeak, Donostiako Udalak, duen ardura azpimarratu dute.



# QUÉBEC ETA EUSKAL HERRIKO SINDIKATUEN ARTEKO TOPAKETA

**Québec-Euskal Herria topaketa sindikalaren bigarren egunez CSN, CSK eta CIGeko ordezkariek eta ELAren Nazio Batzordeak egungo egoera politikoaz hausnarketa egin zuten. Leire Txakartegik egin zuen jardunaldiaren aurkezpena:**

**"2001eko maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeak dira. Estatuak kanpaina antolatzen du Erkidegoko Erakundeetara iristeko. EAJ-EA koalizioak 600.000 boto baino gehiagorekin nabarmen irabazi zituen hauteskundeak. Ezker Abertzaleak jipoia jaso zuen, 1999ko hauteskundeetako boto kopuru handia galduz. EAJ-EAren egitarau politikoa bi puntu nagusitan oinarritu zen: elkarrizketa eta euskal gizartearen erabakitzeko eskubidean. Ibarretxeren Plana oinarri politiko hauen garapena dugu.**

**Ibarretxeren Proposamena Estatuko alderdiek erabat errefusatu dute, eta eztabaida politikoa Estatutuaren baliotasunean mantentzen saiatzen dira, geroz eta eduki eta berme gutxiago dituen Estatutua. Ezker Abertzalearen aldetik, hasierako ezezkotik abiatuta, alderdiaren bozeramaileak jarrera baikorragoa erakusten ari dira, adierazpen mailan behintzat. Era berean, herri galdeketa ardatz bezala hartuta, prozesuaren erritmoa, galdera eta lurralde artikulazioa adosteko eskaintza egin dute.**

**Hau guztia aztertzeko EHUko hiru irakasle izango ditugu gaur hemen: Iñaki Lasagabasterrek ikuspegi juridikotik eginiko azterketa aurkeztuko du; Mikel Gomez Urangaren gaia 'Gizarte eskuduntzak burujabetza prozesuan' izango da, eta Mario Zubiagarena, berriz, 'Gizarte dinamika burujabetza prozesuan eta indar abertzaleen artean izan beharreko gutxieneko adostasuna'".**




## ■ IÑAKI LASAGABASTER

### *"Es necesario implicar a todos los interlocutores sociales posibles"*



Se ha vendido con excesiva simpleza que el modelo de transición a la democracia en el Estado español ha sido un modelo que exclusivamente tiene elementos positivos. Se olvida la incidencia de los poderes fácticos, que condicionaron de manera muy importante el desarrollo de la estructura política estatal.

Ideológicamente, el reconocimiento del derecho a la autonomía se ha conceptuado como una concesión del Estado, una concesión de quien tiene la soberanía, lo que le puede permitir echar marcha atrás en el proceso. La autonomía es, por tanto, algo otorgado. La existencia de un pueblo, como el pueblo vasco, no tiene ninguna consecuencia para el Derecho.

El desarrollo estatutario y las importantes competencias que tiene deja, sin embargo, algunos contenidos irrealizados, e importantes competencias sin haber sido transferidas. Este es, especialmente, el caso de todas las competencias en materia laboral y las competencias en materia de seguridad social. En estos ámbitos parece que la posibilidad de progreso es prácticamente nulo.

Junto a estos elementos competenciales, la consideración más importante a realizar de la experiencia estatutaria es la limitación que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene en el orden internacional, en el ámbito de la Unión Europea y en el ámbito interno. Estas limitaciones no hacen referencia simplemente a disponer de un ámbito competencial, sino a la posibilidad de tener una política propia, que se pueda defender en cualquiera de esas Instituciones, que se pueda articular, póngase por caso, con otras Comunidades Autónomas, sin necesidad de la interferencia del Estado.

Es necesario que en el Estado se perciba la existencia de países como Euskal Herria no como ente de una estructura administrativa a la que se le reconoce unas competencias en ámbitos muy concretos y después se le limita la posibilidad de intervención, sino como una nación que tiene la pretensión de actuar en una serie de ámbitos.

El desarrollo de la autonomía tiene luces y sombras. Hay elementos positivos, pero tampoco existen sólamente esos elementos positivos. El Estatuto se ha agotado. Es necesaria la asunción de un proyecto político que supere esa idea del poder omnímodo del constituyente español, reconociendo el hecho plurinacional del Estado y siendo consecuente con las consecuencias que puedan derivarse de ese reconocimiento. Por este motivo surge la propuesta Ibarretxe, que significa, por lo menos, una nueva lectura de la Constitución de 1978, que permita un entronque diferente de Euskal Herria en la estructura política estatal.

***Contenido**

El reconocimiento de la existencia de Euskal Herria, constituida por sus siete Territorios Históricos, a los que corresponde el derecho a decidir democráticamente su futuro político. El derecho a decidir deberá realizarse teniendo en cuenta las divisiones actualmente existentes, es decir, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Comunidad Foral de Navarra e Iparralde.

El ejercicio del derecho a decidir el futuro político de Euskal Herria significa el reconocimiento de la competencia para realizar referenda, que estará en poder de las autoridades vascas. De la misma forma se reconocerá la nacionalidad vasca, aunque no se vinculan derechos concretos a este reconocimiento; la nacionalidad vasca tendría más un contenido simbólico que otra cosa.

La propuesta contiene un reconocimiento competencial en una serie de materias, que desde la perspectiva ahora analizada interesa fijarse en las de carácter económico y social. En la propuesta no se plantea la existencia de unos derechos históricos ni se afirma el principio democrático para después llegar a cualquier meta, desde la autonomía, al estatus de estado libre asociado o a la independencia. El final del proceso se dibuja firmemente: Se apuesta por seguir vinculados al Estado español, no se quiere la independencia.

***Conclusiones**

**1.** El hecho de que el Lehendakari inicie la elaboración de la Propuesta y su tramitación a través del procedimiento de reforma estatutaria no es por sí mismo suficiente como para denostar esa iniciativa.

**2.** Consecuencia de lo anterior es que es necesario participar en ese proceso. Hay que presentar las alternativas a través de las fórmulas o instrumentos que a partir de octubre se planteen desde Lehendakaritza. Y hay que invitar a todos los sectores sociales, también a la izquierda abertzale, a implicarse en el proceso.

**3.** Van a proponerse iniciativas políticas fuera de las previstas en los cauces propiamente institucionales como la del Lehendakari Ibarretxe. Hay que intentar que esas propuestas que puedan venir desde fuera, más en concreto desde la izquierda abertzale, converjan con la propuesta del Lehendakari.

Para ello, es preciso también debatir en ese ámbito sobre las cuestiones fundamentales que aquejan a este País, lo que exige también que los diferentes movimientos sociales, sindicatos y otras organizaciones se impliquen también en esa propuesta externa a la propiamente institucional.

**4.** La participación en ambos lados tiene un objetivo fundamental: la unidad de la fuerzas abertzales. Es necesario implicar en ambos procesos a todos los interlocutores sociales posibles.

**5.** Junto a la política de unidad hay que dar especial importancia a la internacionalización del conflicto vasco. Si otros Estados u organizaciones internacionales ponen interés por la falta de democracia en Euskal Herria, por las limitaciones de la expresión democrática del pueblo o por la falta de respeto al principio de

separación de poderes, saber llegar a ese ámbito internacional con esos mensajes debe ser un eje fundamental de la política.

El mayor condicionamiento que existe para esta internacionalización es, sin embargo, que se mantenga la actividad de ETA, uno de los componentes que con mayor facilidad se utiliza para negar legitimidad a las propuestas políticas planteadas en nuestro País.

**6.** El cese de la actuación de ETA puede ser muy importante desde estas dos perspectivas: por un lado, otorgaría credibilidad a las propuestas que se puedan hacer desde la izquierda abertzale de manera diferenciada a la del Lehendakari. A su vez, es menos complejo poder dirigirse a ciertos sectores, por lo menos de la izquierda española, para invitarles a que acepten el que en Euskal Herria definan los que aquí viven su futuro, aunque los primeros puedan pensar o plantear que ese futuro está mejor dentro que fuera del Estado o que está mejor dentro del Estado y en determinadas condiciones.

## ■ MARIO ZUBIAGA

### "Prozesu soberanista, demokratiko eta zibilaren gakoak"



ELAk prozesu soberanista demokratiko eta zibila aldarrikatzen du. Lau osagaiok lotuta daude eta egon behar dute, gainera:

***Prozesua.** Izaera soziopolitikoa behar du. Ez da parlamentuaren garaia, ezta alderdi politikoei txeke zuria ematekoa ere, esparru sozial eta politikoak aktibatzeko unea baizik.



Etengabea: Prozesuak adierazi behar du tempus sozial bat ere badagoela, ez soilik Ibarretxerena; soberanismo sozialetik lehiatu egin behar dugu lehendakariaren tempusarekin, eta ez hari utzi dena erabakitzen.

Edukiak: mobilizazio soziala ezinbestekoa da. Baina manifestazioak, bilkurak agortuta daude; grebak ere muga-mugan, eta jendeak tresna kolektiboak ez ditu ulertzen. Horregatik, beste esparru berri batzuk ere landu behar lirateke, bai erakundeei begira –legeekimen herrikoiak...–, edota desobedientzia zibila.

***Soberanista.** Bide anitz, eta abangoardiak ere ekidin behar dira. Soberanismoa Euskal Herrian neurri batean aberastu egin dugu: modu sinplean definituta formalki soberano izan gabe soberano gisa aritzea bada, hemen eduki oso garbi bat dauka; abertzaletasuna eta errebindikazio soberanista eta praxi aurrerakoia, justizia soziala batera datoz, ezin dira bereiztu.

Ezin dugu soberanismoaren atal batean edo bestean geratu; hiru aurpegi dauzka, eta osagarriak dira.

**1.** Eduki aurrerakoien garapena. Hortxe dago Euskal Herriko Gizarte-foroaren bidea, adibidez.

**2.** Gune nazionalak sortzea, abertzaleen proposamen instituzionalak bideratzeko; euskal subjektua erakundetzea, alegia.

**3.** Praxi instituzionaletik dator kontsulta soberanista. Ez da estatutuaren erreforma berresteko kontsulta bat. Beste kontu bat da erremediorik ez badago kontsulta Ibarretxek aipatzen duenaren modukoa izatea.

***Demokratikoa.** Ezin daiteke izan *demokratiko*egia, hor baitago populismo plebiszitarioaren arriskua.

***Zibila.** 'Eskubide guztiak guztientzako, edonon" litzateke zibiltasunaren adierazpen diskurtsiboa. Zibila bai, baina ez *zibil*egia; hori abiapuntu bezala jartzeak ez du etorkizunik, hortan jarduten den sektoreak esan duelako horrek ez duela balio. Bidean erakutsi behar da eraginkortasun hori, eta inolako menekotasunik gabe.

***Atakatik irteteko minimoak**

Barnera begira soberanismoa abertzalea da, euskal herritarrak –zazpi lurraldeetan Euskal Herria existitzen dela sentitzen dutenak– asetu nahi ditu. Kanpora begira soberanismoak demokratikoa izan behar du: euskal hiritarrak lasaitu egin behar ditu (hiritarrak Euskal Herriko lurralde guztietan bizi direnak dira).

Horren arabera zehaztu behar dira eduki minimoak: Barnera begira, konpromiso hirukoitza: Soberanismoaren edukiak mantentzea; praxi eta diskurtso aurrerakoia; erreferentzia instituzional politiko nazionalak sortzea, eta esparruz-esparru finkatu eta garatu boterea kontsultaren bitartez.

Soberanismoaren hiru eduki horiek lotuta agertzea izango litzateke minimoa: lotuta agertzea esan nahi du ezin direla 99ko akatsak errepikatu, hau edo bestea (Udalbiltza konstituientea edo ezer ez).

Eskaintza demokratikoa hiritar guztiei: beste planteamendu hirukoitza.

**1.** Proiektu guztiak Euskal Herrian, euskal proiektu guztiak, bidezkoak dira, eta euskal hiritarren borondatearen arabera erabaki eta bideratuko dira.

**2.** Kontsulten bidez zabaltzen diren prozesuetan –EAEn, Iparraldean departamendurako kontsulta, Nafarroan batek daki zeren bidez– euskal hiritarrentzako eskubideen zolu komun bat errespetatuko da. Gutxiengoak beti izango du eskubide eta askatasunen arloan errespetua.

**3.** Erreferentzia gune nazional horietatik ematen diren pausoak –ez da bakarrik Udalbiltza sinboliko bat sortzea–, horiek ere eduki instituzional bat badaukatela planteatu beharko litzateke.

Egitura nazional hauetatik datozen planteamenduak gehitzaileak direla, hots, ez dutela aukera bat egitea esan nahi –hau utzi, bestea hartu–. Abertzaleon nahia geure burua erakunde nazional babesean sentitzea da. Babes hori zertan islatuko den, adibidez naziotasun espainola adierazten duen karnetarekin batera badaukadala beste bat, naziotasun bikoitza.

***Kontsultaren balioa**

Oraingo egoeraren desblokeoa nondik etor daiteke? Desblokeorako modua kontsulta izan daiteke, sei arrazoi medio: Eduki soberanista da; demokratikoa da; beste alde batetik, eduki zibila ziurtatu dezakeen eragile batek hitz egiteko gai bat izan daitekeela dio; lehendakariak Espainiako indarrekin aurre egiten duenean kontsultaren leloa erabili beharko du; gehiengo sozial bat badago aktibatzeko prest. Euskal hiritarrak, gizartea lasaitzeko. EAEko inkesten arabera, baina baita Nafarroan (nafarrek erabakitzeko aukera) eta Iparraldean ere (departamenduaren alde), eta azkenik, ELAk defenditu izan du jarrera hau.

## ■ MIKEL GOMEZ URANGA



### *"Una propuesta con claroscuros"*

Voy a tratar de completar tres propuestas que hemos mantenido un conjunto de economistas en varias publicaciones elaboradas para la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua. Defender estas propuestas supone un posicionamiento ante la situación actual e incluso ante la propuesta del lehendakari Ibarretxe.

La primera propuesta se refiere a la necesidad de la democracia representativa y a la necesidad de llegar a un nuevo contrato. Allí decíamos que era preciso que todos los proyectos políticos fueran avalados por las urnas, fueran estrictamente pasados por los mínimos democráticos. Y, en todo caso, lo que se requería era un nuevo consenso porque el consenso estatutario-constitucional había quebrado, al menos para una parte importante de la población vasca. En esta idea se ubica en parte la propuesta de Ibarretxe. (Los navarros no parecen tener necesidad de un nuevo contrato por ahora, si nos atenemos a las mayorías políticas que se definen en la CFN).

La segunda propuesta puede ser más discutible: aunque esa dinámica soberanista debía ser liderada por fuerzas progresistas (con fuerte contenido social y de justicia redistributiva), debía llegar a alianzas con otras fuerzas que aceptasen unos mínimos.

La tercera propuesta viene a decir que una parte importante de las competencias pendientes en Hego Euskal Herria, y más en concreto en la CAPV, son de contenido sociolaboral y, por lo tanto, las fuerzas sociales y sindicales serán las más interesadas en que se logren esas competencias.

***Alguna valoración sobre el Plan Ibarretxe**

Si evaluamos el plan desde la perspectiva que he planteado, de democracia participativa-democracia deliberativa-democracia consultiva-participativa, lo primero que he de decir es que la propuesta es muy deficitaria en participación. No hay participación real. ¿No será que se está quedando en un plan de élites, de «expertos»?

En cuanto a democracia-consulta, algo hay, porque esta diseñada expresamente en referencia a la «madre de todas las consultas». Pero el problema es que no se ven otros asuntos que vayan a consultarse. En este caso, desde el punto de vista de la democracia directa, tengo mis dudas sobre el plan.

En cuanto a la democracia deliberativa, el hecho de que se plantee unos plazos, eso va a dejar oportunidad a deliberaciones. Lo que no deja oportunidad es que el gobierno vaya al parlamento, este vote y saque la ley. En este procedimiento no hay deliberación. En esta propuesta, aunque sólo sea por la razón de que necesita ese apoyo social, deja un margen a la deliberación.

Puestos a evaluar, por tanto, podríamos decir que esa propuesta tiene sus claroscuros y probablemente tiene algunas tendencias que se podrían quebrar. Lo deliberativo, por ejemplo, se podría quebrar en el caso de que en un momento dado «los de turno» lleguen a un acuerdo con otras fuerzas políticas (el PSE por ejemplo) y anulen toda posibilidad de participación porque no les interesa ya.

### Europa, Palestina eta Israelgo gizarte-mugimenduen nazioarteko topaketa

# OKUPAZIOAREN AURKA




*Olatz Alberdi.*

**Urriaren 17tik 19ra bitartean Bilbon okupazioaren aurka dauden Palestina, Israel eta Europako gizarte-mugimenduen arteko topaketa izan dugu. ELAren nazioarteko sailean lan egiten duen Olatz Alberdik eman digu topaketaren berri.**

**–Zein zen topaketaren helburua?**

–Batetik, Palestina eta Israelen arteko gatazkaren berri zehatzagoa izatea, baita bere testuinguruarena ere. Bigarrenik, bi herrietako erakunde zibilen artean hurbiltzeko aukera bideratzea; herri palestinarrarekiko elkartasun lanerako ardatzak adostea, abiapuntutzat oinarrizko eskubideak aintzat hartzen direla izanik. Hirugarrenik, okupazioa amai dadila aldarrikatzea, estatu palestinarra eratzea, errefuxiatuen itzulera, presoen askapena... Halaber, aipatutako jarduerak garatu ahal izateko gizarte-mugimenduen sarea eta lan-agenda osatzea.

## EMAKUMEAREN PAPERA

**–Hiru egunetan egindako lanaren mamia zein izan da?**

–Emakume palestinar eta israeldarren parte hartzea, gatazkaren konponbidean protagonismo handiagoa izan nahi baitute.

Bestalde, hainbat lekukotza entzun dugu Israelen bizi diren palestinarren egoerari buruz, palestinarrek medikuarreta egokia izateko zailtasunez, errefuxiatuen gaiaz: Palestinarren bi heren erbesteratuta daude.

**–Zein ote da irtenbidea?**

-Gatazka nazioartera eraman behar da. Beharrezkoa da Palestinako herriaren eskubideen alde nazioarteko estrategia. Eta hau ez da erraza, 2001eko irailaren 11z gero eta Irakeko inbasioa izan denetik eskuin muturreko israeldarrek AEBetako gobernuarekin duten elkar hartzea areagotu egin baita.

## ADIERAZPEN BATERATUA

**–Jardunaldian adierazpen bateratu bat adosterik izan duzue. Zeintzu puntu berri dakartza?**

–Batik bat, gizarte-mugimenduen sarea bultzatzeko borondatea; izan ere, partaideok gure Gizarte-Foroetan proposatuko dugu Palestinako auzia lehentasunen artean sar dadin. Gatazkaren konponbidean Europak izan dezakeen papera ere azpimarratzen da, eta EBri Israel estuago har dezala eskatzen zaio adierazpenean.

**–Bada ekintza plan bat ere.**

–Bai, azaroaren 9a Sharonen gobernua eraikitzen ari den harresiaren aurkako nazioarteko borroka eguna izango da; martxoaren 8an emakume palestinarraren eskubideak izango dira bereziki kontutan; hil bereko 20an, berriz, okupazio ororen aurkako nazioarteko eguna izatea erabaki dugu, eta azkenik, martxoaren 30ean Palestinako Lurraren eguna ospatuko da. Munduko iritzi publikoarengan kezka piztu eta politikarien agendan Palestinako sarraskia ezartzea da helburua.

## Argitalpenak Publicaciones

### ● "Mapa inacabado del sufrimiento"




La Fundación Manu Robles-Arangiz acaba de editar un informe sobre las consecuencias de la violencia en Euskal Herria, elaborado por el periodista Sabino Ormazabal.

El "Mapa inacabado del sufrimiento" contiene una introducción, once capítulos y un anexo, junto con la relación de las fuentes utilizadas. En edición bilingüe, el trabajo de Sabino Ormazabal, traducido al euskera por X. Aranburu "Artzai", ofrece en 176 páginas una recopilación abierta de datos sobre la violencia, las violaciones de derechos humanos, las agresiones a las libertadades y el padecimiento de las víctimas generado con ocasión del conflicto vasco.

Como señala el autor en la introducción "este documento estructura y ordena una gran cantidad de datos sobre esas vulneraciones de derechos humanos, tomando como base el más amplio abanico de fuentes de información. En todo caso, la enumeración cuantitativa de víctimas y sufrimientos sólo tiene sentido si nos acerca a la realidad y nos sirve para ponernos en la piel de los seres humanos que hay detrás de las cifras.

Cuatro son los objetivos que se persiguen con esta publicación:

- Contribuir a la toma de conciencia de la realidad del sufrimiento padecido en nuestro país por causa de la violencia y las violaciones de derechos humanos.
- Contribuir a la solidaridad activa con todas las víctimas.
- Contribuir a un reconocimiento público del sufrimiento padecido por todas las víctimas y sus familias.
- Contribuir a la humanización de comportamientos y actitudes para la paz, y la reconstrucción de la convivencia.

## AYUDA ECONÓMICA PARA LA IKASTOLA DE LUMBIER, NAFARROA OINEZ 2003

**El 19 de octubre los/as organizadores/as se vieron obligados a suspender la fiesta del Nafarroa Oinez, en Lumbier, debido al mal tiempo. Esta suspensión ha provocado graves pérdidas económicas en un acto cuyo objetivo, precisamente, es recaudar dinero y solidaridades. Por todo esto ELA llama a sus afiliados y afiliadas, simpatizantes y a la sociedad en general a ayudar económicamente a la Ikastola Arangoiti haciendo donativos en las siguientes cuentas corrientes:**



***Kutxa**
**2101 0381 05 0011331584**

***Banco Santander Central Hispano**
**0049 2572 24 2514210130**

***Caja Laboral**
**3035 0058 35 0580077630**

***Caja Rural de Navarra**
**3008 0042 51 1203795925**

***Caja de Ahorros de Navarra**
**2054 0041 86 9134923815**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

**Franqueo concertado n.° 08/207**